



● ● ● ● ● ● ● ●

## JUNTAS GENERALES DE ALAVA ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

### **1984KO UZTAILAREN 30KAKO FORU ARAUA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTZEJUEN ERREJIDOREAK ETA BATZARKIDEAK HAUTATZEKO (ALHAOko 91. zk., 1984ko abuztuaren 7koa)**

**(Testu bateratua)**

#### **ZIOEN AZALPENA**

Uztailaren 17ko Hauteskunde Lokalei buruzko 39/1978 Legeak 29.4 artikuluan xedatzen du Arabako Auzo-batzarrak betiko ohituren arabera antolatzen direla. Xedapen horretan oinarrituz, 1979.urtean hauteskunde lokalak deitu eta egin zirenean, ez zuten gauza bera egin Araba probintziako Administrazio-batzarrekin.

Hori dela eta, hauteskunde horien ondorioz Lurralde honetan sortutako Biltzar Nagusiek Administrazio-batzarren berrantolaketa arautzeko beharra zegoela ikusi zuten eta, horrela bada, 1979ko maiatzaren 27an Agurainen ospatutako Ohiko Osoko Bilkuran Batzorde bat sortzea erabaki zuten, Arabako Auzo-batzarren karguen hautaketa arautzen zuten arauak bildu, bateratu eta gaurkotzeko.

Batzorde horren ondorioz Araba Probintziako Kontzejuen Errejidoreak eta Batzarkideak Hautatzeko auzo-arauari buruzko testua egin zuten. Testu hori 1979ko azaroaren 25ean Biltzar Nagusiek egindako Osoko Bilkuran onetsi zuten eta, ondoren, Administrazio-batzarra eta Kontzeju guztietara bidali zuten, haiek arau horiek bere gain har zitzaten, betiere haien ohitura eta tradizioen arabera egitea erabakitzen dituzten aldaketekin..

Akordio hori bere arrazoiak zituen, ezen uste baitzuten Arabako Auzo-batzarrak, mendez mende, beraien ohitura zaharren arabera antolatzen zirela, gorengo lurralde-erakunde baten mende egon gabe, eta beraz, eta indarrean dagoen legediaren arabera, antolaketa eta funtzionamendu buruzko arau batzuk ezartzea Biltzar Nagusien eskumena eztabaidagarria zen.

Arau horien arabera, Biltzar Nagusien gomendioz egin ziren moldaera-akordioen arabera Administrazio-batzar eta Kontzeju bakoitzaren ordenantzatan jadanik barne sarturik, 1980eko apirilaren 27an Errejidore eta Batzordekideak hautatu zituzten, lau urteko eperako. Epe hori 1984ko apirilaren 27an amaituko zen.

1983ko maiatzean beste hauteskunde lokal batzuk egin zituzten, nahiz eta honetan ere ez zuten Arabako Auzo-batzarren hauteskunderik egin. Hauteskunde Lokal horiek Hauteskunde Lokalei buruzko Legean zein Biltzar Nagusiek dinamizatutako eta Kontzejuak egokitutako hauteskunde-arauen arabera egin ziren.

1983ko hauteskundetan eraturako Biltzar Nagusiek, Foru Erregimen eta Udal Arazo Batzordearen barnean ikusi zuten Administrazio-Batzarretarako Hauteskundeei buruz Foru Arau bat egin beharra zegoela, ezen 1979ko azaroaren 25eko Ohiko Bilkuran onetsitako beste arauen ostean Euskal Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa argitaratu zuten. Lege Organiko horrek, 37.3.b) artikuluan xedatzen du udal hauteskundeen araubidea bakar bakarrik Lurralde Historikoen eskumena dela eta, ondorioz, Lurralde Historikoen ere dute Toki Entitate Txikietarako Hauteskundeen araubidearen eskumena. Beraz,

Arabar Toki Entitate Txikiak hautatzeko araubidearen eskumenari buruz Arabako Lurralde Historikoaren organo arautzaile gorenean planteatu zen zalantza hark ez zuen inolako arrazoirik.

Hau dela eta, Foru Erregimen eta Udal-Arazo Batzordeak Ponentzia bat izendatu zuen, Lurralde Historikoaren Administrazio-batzarren Errejidoreak eta Batzarkideak hautatzeari buruzko testua idatz dezan.

Hasiera-hasieratik Ponentziak ohizko hautaketa-sistema 1978ko Espainiako Konstituzioak 23. artikuluan onartzen duen aginduarekin elkartu behar zutela ikusi zuen. Agindu horren arabera, edozein hiritarrak, zuzenean edo libreki eta sufragio unibertsal bidez noizbehinka hautatako ordezkari baten bidez, gai publikoetan parte hartzeko eskubidea du.

Administrazio-batzarrak Toki Entitate Txikiak dira, Toki Araubidearen Legearen 10-b) artikuluan eta 1952ko maiatzaren 17ko Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudiaren 1. artikuluan agertzen den terminologiaren arabera. Beraz, eskubide publikoko entitateak dira, eskumenak gauzatzeko gaitasun juridiko osoa dute (Toki Araubidearen Legearen 6. artikulua), horregatik, Konstituzioaren 23. artikuluan onartzen den eskubidea aplikatuz, beharrezkoa da Entitateen arazo publikoetan partehartze eskubidea adin nagusiko, egoiliar eta dagokion Udalean erroldatua den pertsona guztiei zabaltea.

Beraz, Arabako Kontzejuen Errejidore eta Batzarkide hautaketa-prozedura arautzen da, eta Kontzeju ireki eta Administrazio-batzarren arteko bereizketa ahazten dute, eta funtzionamendu eta antolaketa araudi batetan legegaia izan liteke.

Lurralde Historikoaren Hautaketa-batzarrari hauteskundeak kontrolatzeko ardura ematen diote, ezen hauteskundearen erakunde legalak egin behar horretarako egokiak ez direlako.

Hautagai-zerrenda indibidualak aurkez daitezkeela aurreikusten da, eta hautagairik ez balego, hautatzaile guztiak hautagaiak izango dira.

Aurreikusten da Kontzejuak ordezkariarik gabe gera daitezkeela, bai hautatuek karguari uko egiten diotelako, bai karguak onartzen ez dituztelako. Beraz Toki Erakundea desegingo da entitatea zuzendu eta funtzionamenduaz arduratzen den pertsonarik ez badago.

Hautaketa prozesua arautzeko eta Foru Araudi honek eta Foru Aldundiak hartuko dituen aurrerabide-erabakietan aurreikusten ez diren puntutan aukeraketa lokalei buruz une bakoitzean indarrean dagoena arau-laguntzazkoa izango da.

Azkenez, komenigarritzat hartu dute Administrazio-batzarren hautaketari buruzko orain den araudia ezeztatzea, bai idatzia bai ohiturazkoa, horrela bakar-bakarrik indarrean izango dira Euskal Autonomia Estatututik eta Lurralde Historikoaren Foru Organoetatik datozen erabakiek.

## **LEHEN TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK**

### **1. Artikulua.- Xedea**

Foru Araudi honek Arabako Lurralde Historikoaren Kontzejuen Errejidoreen eta Batzarkideen hautaketa-prozedura orokorra arautzea du helburu, EUSKAL AUTONOMIA ESTATUTUAREN abenduaren 18ko 3/1979 LEGE ORGANIKOAREN 37. artikuluan aurreikusten denaren arabera.

### **2 Artikulua.- Hautagarriak diren karguak**

1.- Bizilagunek hautatuko dituzte Errejidoreak eta Batzarkideak aske, zuzen eta isileko sufragio unibertsalaren bidez.

2.- Errejidore Lehendakaria eta gutxienez bi batzarkide hautatuko dira, 400 bizilagun baino gehiago dituen Entitateetan 200 bizilagun bakoitzeko batzarkide betetan gehiagotuko da.

3.- Karguak, dohainezkoa izango dena eta zintzoki beteko dena, lau urte iraungo du, hauteskunde berrietan amaituko da eta bere eginkizunekin jarraituko du aukeratutako hautagai berriak kargua eskuratu arte.

### **3. Artikulua.- Hautatzaileak eta hautagaiak**

1.- Hautatzaileak Entitate Lokalean bizi diren adin nagusiko bizilagunak dira. Entitate Lokalean erroldatuta egon behar dira eta haien eskubide zibil eta politikoen jabe izan behar dira.

2.- Hautagaiak izan daitezke hautatzaile izateko baldintzak betetzen dituzten bizilagunak eta aurreko artikuluan aipatzen diren legez kontraktotasun arrazoietan sartzen ez direnak.

3.- Arau honen ondorioetarako, Entitatean bizi dela uste dugu Udal-errolan agertzen dena, kontrakoa frogatzen ez bada, tarteka daitezkeen helegiteen erabakietan okerrik gabe.

### **4. Artikulua.- Hautaezintasuna**

Honako hauek ezin dira hautatu eta karguak betetzeko bateraezinak izango dira:

a) Edozein eremuko Hautagai Batzordeko kideak.

b) Guraso-botere eskubidea egikaritu ezin dutenak, ezinduak daudenak, gaitasun gabe daudenak, edo debekatuak.

c) Entitateen zordun direnak eta premiamenduzko espedientea hartuak izan eta Entitatearekin auzian daudenak bai auzi-jartzaile bezala bai demandatu bezala.

d) Judizial eta fiskal karreradunak eremu guztietan, bake epaileak barne. Armadakoak, Nazio-Polizia eta Goardia Zibila, Goi Polizia-sailekoak eta Ertzainak.

e) Entitatearen aurka judizial edo administraziozko prozedura daramaten abokatuak eta prokuradoreak.

**f) Herri-batzarraren gaineratik dagon udaleko alkatea, zeinen hautaketa egin nahi baita, eta funtzionarioak edo herri-batzar horren zerbitzura lan egiten duten gainontzeko enplegatuak. (Apirilaren 14ko 10/97 Foru Arauak aldatu duena. ALHAOko 45 zk., 1997ko apirilaren 23ko)**

Artikulu honetako aurreko atalean aipaturiko bateraezintasunezko kasutan daudenak, ezingo dira hautatuak izan kontzejuan karguak betetzeko, salbu Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkarian argitaratu bada hauteskundeetara dei egin ondoren zortzi egunera kargua utzi dutela.

## **BIGARREN TITULUA.- HAUTESKUNDE ANTOLAKETA**

### **5. Artikulua- Hauteskunde-Barrutia**

Hauteskunde-Barrutia Toki Entitate Txiki bakoitzeko mugapea izango da.

## **6. Artikulua- Deialdia**

1.- Hauteskunde-deialdia Foru Aldundiak egingo du. Hauteskunde-deialdia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkarian argitaratuko da bai eta Lurralde Historikoan argitaratzen diren edo edizio duten egunkarietan, Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru lanegunetako epean.

2.- Hauteskunde-deialdia Lurralde Historikoaren Aldizkarian argitaratzen denetik eta bozketa egiten den egunaren artean behintzat 30 egun izan behar dira, baino inoiz ez 40 egun baino gehiago.

## **7. Artikulua.- Hauteskunde-Batzordea**

Araba Lurralde Historikoaren Hauteskunde-batzordek Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunde Legean aurreikusitako prozesuaren kontrola izango du.

Bere akordioen aurka egin daiteke hauteskundeekiko auzi helegitearen bidez, indarrean dagoen legediaren arabera.

## **8. Artikulua.- Hauteskunde-Zerrendaren Argitarapena**

Hauteskunde-deialdia egin ondoren eta bost laneguneko epean, Kontzeju bakoitzeko ohizko tokian eremu bakoitzeko biztanleen errolda jarriko da.

Barnean sartu edo kanpoan uztearen aurka, helegitea jar daiteke Hauteskunde-Batzordean eta hiru asteguneko epean. Hauteskunde-Batzordeak, eta bost astegun epe barruan, agiri-probak eta testigantza-probak azterturik, beharrezkotzat hartzen duena erabakiko du.

## **9. Artikulua.- Hautagai-Zerrendak**

1.- Errejidoreen eta Batzarkideen hautagai-zerrendak aldarrikapen eskariaren bidez Hauteskunde-Batzordera aurkeztuko dira hauteskunde-deialdian 21 laneguneko epean, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkarian argitaratzen den biharamunean kontatzen hasita.

2.- Hautagai-zerrendak, ondorio guztietarako, indibidualak izango dira, bai boto ematerako bai zenbaketarako. Hauteskunde-Batzordeak alfabetoaren arabera zerrenda irekitan hautagai-pertsonak batuko ditu.

## **10. Artikulua.- Hautagai-Zerrenden Gabezia**

Hautagairik aurkezten ez denean, hautatu ezinezko kausatan ez dauden hautatzaileak hautagaiak izango dira.

## **11. Artikulua.**

1.- Hautagai-zerrenden aurkezpen epea amaiturik, zerrenda ordenatuak Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkarian argitaratuak izango dira. Hautagai-zerrenden arauz kontraktasunak antzeman eta zuzendu ditzake Hauteskunde-Batzordeak, ofizioz edo instantziaz.

2.- Hautagai-zerrendarik ez dagoenen kontzeju-zerrenda ere argitaratua izango da.

## **HIRUGARREN TITULUA.- BOTOA EMATEA ETA BOTO-ZENBAKETA**

### **12. Artikulua.- Botoa Ematea**

Hauteskunde aukeratutako egunean egingo da Kontzeju Aretoan edo ohiturazko bilera tokian goizeko hamaiketatik arratsaldeko hirurak arte. Eratutako Mahaian irtengo diren Errejidore eta Batzarkideak izango dira, "Fiel de Fechos" laguntzaile delarik. Mahaikideek boto txartelak hautestontzi edo ontzi itxi batean hartuko dituzte.

### **13. Artikulua.- Boto-Txartelak**

1.- Boto-txartelak alfabeto ordenan eremu bakoitzeko hautagaiak izendatuko dituzte, lauki bat aurre izanez non hautatzaileak bere botoa ematen dien hautagaien izenak gurutze baten bidez adieraziko dituen.

2.- Boto-txartelak eta kartazalak Foru Aldundiak egingo ditu erabateko ereduz eta hauteskundeetan erabiltzeko kontzejuen eskuetan ipiniko ditu.

### **14. Artikulua.- Botoa**

Hautatzaileak bere botoa bete behar diren postu baino bat gutxiago beste izenei emango die.

### **15. Artikulua.- Hautagai-Zerrenda gabeko Kontzejuak**

Hautagai-zerrendarik ez dagoen Kontzejuetan, hautatzaileak txartel zuri batetan bete behar diren postu baino izen bat gutxiago idatziko du.

### **16. Artikulua.- Boto-Zenbaketa**

Boto-zenbaketa egin ondoren, dagokion Akta jasoko da non hauteskundearen emaitza agertuko den eta, hala bada, sortu diren gertaerak eta erreklamazioak.

Mahaiak udal bakoitzeko Hauteskunde-Batzordeko ordezkariari emango dio aipatutako akata, zeinek, arautuko den arabera, Hauteskunde-Batzordera itzuliko duen.

### **17. Artikulua.- Aldarrikapena**

Arabako Lurralde Historikoaren Hauteskunde-Batzordeak, hauteskundea eta bost lanegunetara, boto gehien izan duen Kontzeju bakoitzeko Errejidore-Lehendakari eta dagozkien batzarkideak izendatuko ditu, eta konponduko ditu, bere kasuan, jartzen dituzten erreklamazioak. Berdinketa badago, boto kopuru bera izan dutenen artean, adin gehiago duenak irabaziko du.

### **18. Artikulua.- Kargu-Onarpena**

10.eta 15. artikuluek aipatzen dutena, hautagai-zerrendarik gabeko kontzejuei buruz, Hauteskunde-Batzordeak aukeratuei beren izendapena jakinaraziko die, hauek ezeztatu ahal dute Hauteskunde-Batzordera idatzi bat bidaliz, jakinarazpena hartu eta bost asteguneko epean.

Hautapena ukatzen badu, Hauteskunde-Batzordeak boto-emaitzak jarraituz hurrengoak izendatuko ditu.

### **19. Artikulua.- Karguetarako Hautagairik ez izatea**

Karguen hautapena onartzen ez dutelako Kontzejuari dagozkion karguak edo kargu batzuk ezin badira bete, Foru Aldundiak gestora izendatuko du, non, hala badagokio, uko egin ez duten aukeratutakoek parte hartuko duten.

## **20. Artiku1ua.- Gestora**

**Gestorak hasieratik urte bateko epean ekingo dio bere mandatuari eta epea amaitu aurretik hauteskunde berriak ospatuko dira.**

**Hauteskundeak ospatu ondoren azkenurreko artikuluan aurreikusten den gauza bera sortzen bada, Foru Diputazioak Entitate deuseztapen bete beharreko izapideak hasiko ditu. (Martxoaren 20ko 11/95 Foru Arauaren bidez indargabetua. ALHAOko 38. zk., 1995eko martxoaren 31ko)**

## **21. Artikulua.- Bete Gabeak**

Hautatutako baten batek uko egiten badu, hiltzen bada, ez gai baldin bada edo legez kontrako arrazoi bat dela eta, boto gehien duen hurrengoak hartuko du kargu hori.

Kargu ukapena Hauteskunde-Batzordean egin behar dute, eta Kontzejuak ere aurreko paragrafoan aipatzen diren gertaerak jakinaraziko dizkio.

Kasu guzti hauetan Hauteskunde-Batzordeak horien ordezkoa aldarrikatuko du.

Hautatutako ordezkariarik ez balego, Hauteskunde-Batzordeak Arabako Foru Aldundiari jakinaraziko dio, 19 eta 20 artikuluetan aurreikusten diren ondorioak sortuz.

## **LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA**

Araudi honetan eta honen aurrerabide-erabakietan aurreikusten ez dena, momentu bakoitzean indarrean dagoen Hauteskunde Lokalei buruzko araudian xedatutako erabiliko da ordezkotza izateaz.

## **BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA**

1.- Hauteskundeak dakartzan gastuak Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorren kargura izango dira. Gastu horien barnean dira Hauteskunde-Batzordearen funtzionamendu gastuak eta bere eginkizunak betetzeko behar dituen langile tekniko edo ordezkarien gastuak, Batzordeko Idazkaritzan lanean ari diren pertsonenak ezik, eta bere ordezkarien gastuak.

2.- Hauteskunde lanetan, prestaera eginkizunetan edo gauzapenean parte hartzen duten funtzionarien haborokinak, lan hauek beren lanpostutik aparte direnean, beste diru-sarrerekin elkargarriak izango dira.

## **HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA**

Araudi honi buruz Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkariak aipamenean bat argitaratzen duenean, Arabako Foru Aldundiak Arabako Lurralde Historikoaren Toki Entitate txiki bakoitzari aldizkari horren alea bidaliko dio.

## **LEHEN BEHIN-BEHINEKO XEDAPENA**

Foru Arau hau betetzeko egingo den hauteskunde-deialdiaz oraingo kontzeju karguak utziak izango dira, kontuan izan gabe zein datan hautatu zituzten, hautatu berriek karguaren jabetza hartu arte jardungo dute.

### **BIGARREN BEHIN-BEHINEKO XEDAPENA**

Arabako Foru Aldundiari eskubidea ematen zaio Foru Araudi honetan aurreikusten dena bidera dezan.

### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Arabako Toki Entitate Txikien hauteskundeekin zerikusia duten Biltzar Nagusien, Kontzejuen eta Administrazio-Batzarren eta edozein erakunderen erabakiak eta akordioak indargabeturik geratzen dira.